



Arartekoaren 2016R-2647-14 Ebazpena, 2016ko otsailaren 22koa. Horren bidez, Erandioko Udalari gomendatu zaio atzerapen gehiagorik gabe har ditzala Lubarri kalean ezarri duen oinezkoentzako araubidea eta kale horrek Meso kalearekin bat egiten duen gunean trafikoko araudia betetzea bermatzeko neurri egokiak.

Aurrekariak

1. Erandioko herritar batek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, ez zelako Lubarri kalean ezarritako oinezkoen araubidea betetzen, eta kale horrek Meso kalearekin bat egiten duen gunean ibilgailuak bidegabe aparkatzen zirelako.

Antza, Lubarri kaleko oinezkoentzako araubidea "R-100. Debekatuta zirkulatzea" gisako seinale bertikalekin dago seinaleztatuta. Horren arabera, zama-lanak egiteko baimena duten ibilgailuak zirkulatzeko debekutik salbuetsita daude, asteko egun eta ordu jakinetan.

Interesduna kexu zen, zehazki, baimenik gabeko ibilgailu mota oro sartzen zelako oinezkoentzako kalera, eta bertan aparkatzen zutelako; bestetik, kexu zen garraiolariak ohikotasunez okupatzen zituztelako bai espaloia, bai Meso kaleak Lubarri kalearekin bat egiten duen lekuan dagoen zebraidea, salgaiak deskargatzeko, eta kexu zen, era berean, ibilgailuek Meso kaleko espaloian aparkatzen zutelako, izan ere, bere ustez, jarduera horiek ordenamendu juridikoaren aurkakoak dira eta, gainera, arriskuan jartzen dute oinezkoen segurtasuna.

Adierazi zigunaren arabera, neska-mutil gaztetxoak ibiltzen dira oinezkoentzako eremuan; bada, bere ikuspuntuaren arabera, horrek areagotu egiten du bere kexa eragin zuen bideko segurtasun gabeziaren arazoa.

Kexagilea, modu berean, kexu zen salgaien deskarga gauez egiten zelako, baimendutako ordutegitik kanpo, auzotarren atsedena asaldatzen zuten zaratak ateraz.

Adierazi zigunez, Udaltzaingoari azaldu zion kontua, eta idazki bat aurkeztu zion udalari, arazoa azalduz eta oinezkoentzako eremua ibilgailurik gabeko eremu izateko beharrezko neurriak har zitzala eskatuz, baina idazkiak ez zuen erantzunik jaso, eta ez zen inolako neurri zuzentzailerik hartu.

2. Kexa aztertu eta izapidetzeko onartu ondoren, Erandioko Udalera jo genuen, kexagileak azaldutako kontuen gainean informa gintzan.

Gure eskaerari erantzunez, zera jakinarazi zigun udalak, kexa jarri ondoren, interesdunak udalaren bulegoetan aurkeztutako idazkiari erantzun ziola Udaltzaingoak, honako terminoetan:





“La Jefatura de la Policía Local, atendiendo a la instancia por usted presentada en el Registro General del Ayuntamiento de Erandio, en la cual describe la utilización indiscriminada que se viene realizando de la zona peatonal de la C/Lubarri con C/Meso, tiene a bien realizarle las siguientes consideraciones:

- a) Los pivotes automáticos que permiten el acceso en tiempo limitado, a los transportistas que reparten el género en los comercios de la zona y que se encuentran ubicados en Lubarri con entrada en Mezo y con salida por Etxegorri, hace un tiempo que se encuentran estropeados, por lo que dicho acceso se encuentra libre. Se ha dado aviso desde el Ayuntamiento a la empresa que corresponde el mantenimiento para su pronta reparación.*
- b) Se observa que la acera de Meso con Lubarri, los transportistas la utilizan de carga y descarga, deteriorando la misma. Desde la policía local, se incrementará la observación de estos incumplimientos y se sancionarán puntualmente los mismos.*
- c) De igual forma, se intensificará la vigilancia del buen uso de la zona destinada a carga y descarga, sita a escasos metros en la C/Meso.”*

Erakunde honen iritziz, aipatu neurriak egokiak ziren kexagileak helarazitako arazoa konpontzeko. Halere, udalak horien gaineko segimendua egin beharko lukeela balioetsi genuen, neurri horiek aplikatzeak nahi zen emaitza eduki duen egiaztatze aldera.

Udalak ez zion guk adierazitako epean erantzun egindako segimenduari buruz eta balorazioari buruz informatzeko igorri genion eskaerari.

Ondorioz, eta neurriak aplikatu ez zirela jakinarazi zigunez kexagileak, iragarpenetik bi hiletik gora igaro baziren ere, berriro jo genuen udalera, aipatu neurriak atzerapen gehiagorik gabe abiaraz zitzan eta horren inguruan informatu gintzan.

Udalak, hasiera batean, ez zion eskaera horri ere erantzun; beraz, errekerimendua bidali behar izan genion. Udaltzaingoak beste txosten bat egin zuela adieraziz erantzun zion udalak errekerimenduari, eta honako terminoetan egin zuela:

“Se viene haciendo un seguimiento específico por parte de la Policía Municipal de la zona en cuestión, en aras a la resolución del problema que se trasladaba en la queja. Por ese lado la situación se puede decir que está razonablemente solucionada.

No obstante, existe un problema de naturaleza técnica por lo que respecta al funcionamiento de los pivotes de control de acceso a la zona, calle





Luberry con Meso y acceso a la plaza Josu Murueta. Son dos cilindros de apertura y cierre que se viene comprobando que están con todo el sistema de elevación agarrotada.

Desde el día 30 de junio, se vienen realizando trabajos para intentar levantar los dos pivotes por la empresa (...). Hasta la fecha únicamente se ha conseguido levantar uno de ellos, el de Luberry con Meso.

Sin embargo con respecto al segundo de ellos, el pivote del lado de la Plaza Josu Murueta, a pesar de los esfuerzos realizados, no se ha conseguido arreglar hasta la fecha, si bien esta semana se ha recibido un resorte especial para intentar levantarlo y se espera que sea la solución, de lo contrario la única opción sería sustituir todo el cajón, obra más engorrosa.

Con el arreglo definitivo de los dos pivotes y la actuación coordinada de la Policía Municipal, se logra el resultado deseado”.

Udalak era berean adierazi zigun zera komunikatuko ziola Arartekoari: *“todas las actuaciones posteriores que se realicen con relación a la cuestión planteada, fundamentalmente el arreglo del pivote que da acceso a la Plaza Josu Murueta”.*

Adierazitako azalpen horiek baino ez zizkigun eman udalak. Dena dela, beste jardunbide baten harira Udaltzaingotik bildu genuen informazioaren arabera, kexa eragin zuen arazoak konpondu gabe jarraitzen du, aipatu poliziak kexaren ondorioz zaintza dispositiboak ezarri zituen arren. Informazio berberaren arabera, oinezkoentzako kalerako sarbidea kontrolatzen duten piboteak berriro matxuratu dira; beraz, edozein ibilgailu sar daiteke. Bestetik, ibilgailuak oinezkoentzako eremura zama-lanetarako sartzeko baimenak berak ere arriskua ekar lezake oinezkoen segurtasunerako.

Interesdunak, bestalde, kexa eragin zuen egoerak berdin jarraitzen duela adierazi digu, eta ez dela aurrerapen nabarmenik egin kexa izapidetzen hasi ginenetik, duela urtebete baino gehiago.

Gogoetak

1. Trafikoko araudiak udalei esleitzen die euren titulartasuneko hiribideetan trafikoa zuzentzeko eta kontrolatzeko eskumena, bai eta agenteekin trafikoa zaintzekoa, aipatu bideetan egiten diren arau-hausteak salatzekoa eta horiek zigortzekoa ere, berariaz beste administrazio bati esleituta ez badago (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartu duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikulua, indarrean egon dena urte horretako urtarrilaren 30era arte, eta lege beraren testu bategina onartu duen





urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikulua, indarrean dagoena hurrengo urtarrilaren 31tik).

Araudi horrek arau-haustetzat jotzen ditu araudiko aginduen aurkakoak diren ekintzak eta ez-egiteak, eta horien artean dago espaloietan, zebra-bideetan eta oinezkoentzako eremuetan aparkatzeko eta eremu horietan zirkulatzeko debekua, baimendutako ibilgailua izan salbu [testu artikulatuaren 65., 39.1.b), 2.a) eta 2.e) eta 53. artikulua, azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorreko 152. artikuluekin (R-100 seinalea) batera, eta testu bateginaren 74. artikulua eta hurrengoak, 40.1.b), 40.2.a) eta c) eta 53. artikulua].

Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, era berean, udalei egotzi die ibilgailuen eta pertsonen trafikoa zuzentzeko eskumena, hiribideei dagokienez [25.2.g) artikulua].

Aipatu eskumenetatik abiatuta, bai eta Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen Legearen 25.2.a) artikuluaurreko idazketak leku publikoen segurtasun gaietan udalei esleitzen zizkien eskumenetatik abiatuta ere, zera adierazi du Auzitegi Gorenak: "*herriarren benetako eskubide subjektibo bat dago, beharrezko neurriak har daitezten, benetan modu eraginkorrean, oinezkoen bide zirkulazioaren segurtasuna bermatzeko*" (2000ko uztailaren 19ko epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 4. saila, bigarren zuzenbide oinarria).

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Ordenamendurako ekainaren 28ko 15/2012 Legeak sistemaren zatitzat jo du bideko segurtasuna, eta berau gidatzeko printzipioak ezarri ditu; besteak beste, arriskuen eta mehatxuen prebentzioa, arazoaren identifikazioa, erantzunaren plangintza eta emaitzen ebaluazioa (1., 2. eta 3.1. artikulua). Legeak zehaztu egin ditu udalek trafikoko araudia eta bideko segurtasuna mantentzeko dituzten eskumenak (6. artikulua).

2. Erakunde honen ustean, udalerrian trafikoko arauak eta bideko segurtasuna berma daitezten aipatu xedapenek Erandioko Udalari esleitu dizkioten eskumenen eremuan dago kexa eragin duen arazoa.

Ondorioz, esleipen horiek kexagileak udalari bidali dizkion eskaerak babesten dituztela uste dugu. Adierazi dugun bezala, udalak jarduerak abiaraz ditzan egin ditu kexagileak eskaerak, hau da, salatu dituen trafikoko araudiaren ez-betetze egoera eta bideko segurtasunerako dagoen arrisku egoera konpon ditzan.

3. Aipatu arauak zuzentzerako tarte handia ematen diote Erandioko Udalari bere titulartasuneko hiribideetan trafikoa zuzendu dezan; hortaz, aukera posibleen artean, eskumen hori esleitzeko xedeak betetzeko egokiena iruditzen zaion aukera hauta dezake legez, betiere bere jarduera mugatzen duten mugak errespetatzen badira.





Zuhurtziako eskumenak erabiltzen diren kasuetan, Arartekoak ez dauka eskuduntzarik administrazioak, balioztatze tartearen barruan, egin duen erregularizazioa beste batekin edo beste irizpide mota batzuetan oinarritutako batekin ordeztzeko, nahiz eta irizpide horiek administrazioarenak bezain arrazoizkoak izan, izan ere, balioztatzeko eremu horretan dauka administrazioak eskumen horien bidezko erabilerak ematen dion babesa.

Lubarri kalea oinezkoentzako kale bihurtzeko erabakia hartzea, eta, aldi berean, ordu jakinetan zama-lanak egiteko ibilgailuen zirkulazioa baimentzea, gure ustean, zuhurtziako eremuan dago kokatuta; beraz, erakunde hau ezin daiteke horren gainean mintzatu.

Hala ere, arestian adierazi ditugun arrazoiengatik, udalak bideko segurtasuna eta kale horretan ezarri duen oinezkoentzako araubidea beteko dela bermatzeko betebeharra dauka.

4. Aurrekarietan adierazi den bezala, udalak onartu egin du trafikoko araudia eta oinezkoentzako araubidea betetzen ez direla, kexan salatzen zen bezala.

Era berean adierazi dugun bezala, ordea, ez dirudi kexaren harira abiarazi zen poliziaren dispositiboak eta oinezkoentzako eremurako sarbidea kontrolatzen duten piboteen konponketaren harira hartu diren neurriek arazoa konpontzeko balio izan dutenik.

Horregatik guztiarengatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honakoa da luzatzen den

GOMENDIOA

Atzerapen gehiagorik gabe har ditzala Lubarri kalean ezarri duen oinezkoentzako araubidea bermatzeko neurri egokiak; bai eta espaloian zein Meso kaleak Lubarri kalearekin bat egiten duen guneko zebrabidean aparkatzeko debekua bermatzeko, edota Meso kalearen zati horretan salgaien deskarga egiteko debekua bermatzeko, eta, bi eremuetan, bideko segurtasuna bermatzeko neurri egokiak har ditzala ere.

Hartutako neurrien gaineko segimendua egin dezala, eta kexa eragin zuen arazoa konpontzeko neurri egokiak direla egiaztatzea eta horren ondorioz jardutea ahalbidetu dezala.

